

IL AZALPEN PROBA • <i>Triangelu irristakorra</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Pauso txikiak eman ez atera da tabernatik. Nire bistatik desagertu denean basoan gelditzen zitzaidan zerbeza guztia edan dut. Gero, presarik gabe, paperean jartzen duena irakurri dut:

Abeletxe ostatua
Larrazabal kalea, 32
Bigarren pisua
18. gela

Azpian emakume biluzi bat irudikatzen duen marrazki eder bat dago. Arkatzez egina. Bizkarrez ageri da emakumea, hogeita hamabost urte ingurukoa, eta tente dago, leiho batetik begira, biluzik. Ile kiribildua sentzualki erortzen zaio ezker aldeko sorbaldan behera, bizkar erdi alderaino. Ederra da marrazkia, sugeritzen duena, esan gabe esaten duena. Irudimena martxan jartzen du segituan.

Ez dago zalantzarik. Emakumeak gizonezkoak baino kalkulatzaileragoak dira. Eta hotzagoak.

IL AZALPEN PROBA • <i>Triangelu irristakorra</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Nekatuko ez da ba, Beñat. Adin horretako lau umek nola nekatzen duten jakingo bazenu... Beti dute eskatzeko zerbait, arreta edo mimo gehiagoren beharra, borrokak, liskarrak, jostailuak elkarri kendu beharra. Ama izatearena munduko ofiziorik gogorrena da. Eta Aitziber bete-betean sartuta dago ofizio horretan. Hogeita lau orduz.

Beste gauza batzuk aipatu eta segituan amaitu dut amarekiko jarduna. Momentu batean pelikula ikusten jarraitzeko gogoz zegoela iruditu zait eta bere horretan utzi dut. Ez diot esan Aitziberren etxean argiekin gertatu dena. Baina amaren jardun seguru eta indartsu horrek lasaitzeko bidean jarri nau.

Dutxa azkar bat hartu, afari arin bat jan eta harrikoa egin ostean, kalerako bidean jarri naiz. Lau lagun gelditzen gara lagunartean. Ezkondu eta umeak eduki zituztenekin ezin da kontatu dagoeneko. Izaten ditugu geure afari eta kontutxoak noizean behin, baina inor esatera ausartzen ez bada ere, gero eta urrunago ikusten dugu geure burua besteengandik.

Haize leun eta gozo batek jo dit aurpegian eta indarberrituta sentitu naiz egunean lehen aldiz. Hodei mardul eta nahasiak ikus daitezke zeruan. Euria datorrela suma daitezke airean.